



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

LURZORUEN KALITATEARI LOTURIK EGIN BEHARREKO JARDUERETARAKO ESKATZEN DEN ZIURTAPEN- ESKAKIZUNARI LOTURIK PLANTEATUTAKO KONTSULTARI BURUZKO TXOSTENA

Aurkibidea:

I.- TXOSTENAREN XEDEA	2
II.- SEKTORE-ARAUTEGI APLIKAGARRIA	3
III.- GAIAREN AZTERKETA	8
1.- Araubide onaren printzipioak	8
2.- Sarrera-oztopoak	11
3.- Ziurtapenak honako jarduera hauetarako gaitzen du:.....	12
4.- Legezko zioak egotea	14
A. 1/2005 Legea.....	14
B. Lege-proiektua.....	15
5.- Ziurtapenak errespetatu behar dituen printzipioen analisia	16
A. Beharraren baldintzaren analisia	16
B. Proporzionaltasunaren baldintzaren analisia	18
IV- ONDORIOAK.....	19



Osoko bilkura:

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Lehiaren Euskal Kontseiluaren (aurrerantzean LEK) Osoko Bilkurak, 2014ko abenduaren 1eko bileran, adierazitako kideek osatuak, lurzoruen kalitateari loturiko zenbait jarduera egiteko beharrezko ziurtapenari loturik planteatutako kontsultari buruz txosten hau eman du.

I.- TXOSTENAREN XEDEA

1. 2014ko apirilaren 29an, Lehiaren Euskal Agintaritzaren korporazio-postontzian (infocompetencia@avdc.es) geologo autonomo batek aurkeztutako kontsulta sartu zen. Lurzoruen kalitateari loturiko zenbait jarduera egiteko beharrezko ziurtapenari loturik indarrean dauden arauen eta urriaren 10eko 199/2006 Dekretuaren arteko bateragarritasuna aipatzen du; Dekretu horrek lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen du, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten ditu¹.

Ziurtapen horren eskakizunak kanpo uzten zituen lurzoruaren kalitateari loturiko zenbait jarduera eta profesional autonomo (batzuk geologoak) eta mikroenpresa batzuk, zeinek, gaitasun, ahalmen profesional eta esperientzia izan arren, ezin baitute ziurtapena lortu antolamendu-egiturarik ez izateagatik eta eskatzailearen ustez lortu nahi den helbururako desproporzionatuak diren beste zenbait eskakizun eskatzeagatik.

¹ 199/2006 Dekretua, urriaren 10ekoa, lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duena, eta erakunde horiek lurzoruaren kalitatearen gainean egindako ikerketen edukia eta norainokoa zehazten dituen (EHAA, 213. zk, 2006ko azaroaren 8a)].



II.- SEKTORE-ARAUTEGI APLIKAGARRIA

2. Jarduera hau orotariko arauak erregulatzen dute eta horietako batzuk, une honetan bertan, aldatzen ari dira. Horregatik da txosten hau bereziki egokia une honetan.

3. Lurzoruen kutsadura saihesteko eta zuzentzeko 1/2005 Legearen xedea Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruak babestea da, jatorri antropikoko ekintzen ondorioz lurzoruen ezaugarri kimikoak aldatzea saihestuz eta lurraldean dauden lurzoru kutsatuei eta eraldatuei aplikatzeko erregimen juridiko bat ezarriz, ingurumena eta pertsonen osasuna zaintze aldera.

Lege horrek zenbait betebeharrak inposatzen dizkie lurzoruen jabe diren pertsona fisiko edo juridikoei, orobat lurzoruak kutsa ditzaketen jarduera eta instalazioen titular diren pertsona fisiko edo juridikoei.

1/2005 Legeak, 36. artikuluan² honako hau ezartzen du:

1.-Lege honetan jasotako lurzoruaren kalitatearen ikerketak egiteko eta berreskurapen-neurriak taxutu eta gauzatzeko, **ezinbesteko** betekizuna izango da **ziurtapena** lortzea.

2.-Autonomia Erkidegoko **ingurumen-organoak** lege honetan aipatzen diren lurzoruaren kalitatearen ikerketak egiteko eta berreskurapen-neurriak taxutu eta betearazteko **ziurtapena** emango die eskatzen duten erakundeei. Arautegietan beharrezko betekizunak eta ziurtapena lortzeko prozedura ezarriko dira. (...)

4. Bestalde, aipatutako 199/2006 Dekretuan, lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta hura berreskuratzeko erakundeak egiaztatzeko sistema ezartzen duenean, eta erakunde horiek egin beharreko lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketen edukia eta norainokoa zehazten ditenean, 3. artikulua honako hau ezartzen du:

1.- Autonomia Erkidegoko erakunde publiko edo pribatuek nahitaez eduki beharko dute egiaztapena hurrengo jarduerak egin ahal izateko:

a) Lurzoruaren kalitatearen miaketazko ikerketa edo/eta ikerketa xehatua diseinatu eta gauzatea, beharrezkoa denean analisi kimikoak in situ eginez.

b) Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko neurriak diseinatzea.

c) Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko neurriak gauzatzen direla ikuskatzea.

d) Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko neurriak gauzatea, in situ, on site edo off site tratamendu-tekniken bidez. Salbuespenak izango dira instalazio finkoetan egindako berreskurapenak edo indusketa eta metatze kontrolatuetan oinarritutakoak.

² 1/2005 Legea, otsailaren 4koa, lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, (EHAA, 31. zk., 2005eko otsailaren 16a.



- e) Berreskuratzeko neurriak hartu eta gero geratutako lurzoruaren kalitatearen ikerketak diseinatu eta gauzatzea.
- f) Lurzoruaren kalitatearen kontrolerako eta jarraipenerako neurriak diseinatu eta gauzatzea.
- g) Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpen baten edukia osatzen duten prebentzio edo/eta defentsarako neurriak diseinatu eta ikuskatzea.

2.- Erakundeak aurreko atalean aurreikusitako edozein jarduera burutzeko eskatu ahal izango du egiaztapena. Horretarako, Dekretu honetako 10. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko du bere eskaerarekin batera.

3.- Eskaera egiten duten erakundeek Dekretu honetako I. Eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte egiaztapena jaso ahal izateko.

4.- Artikulu honetako lehen ataleko d) epigrafean aurreikusitako jardueretarako egiaztapena izan arren, erakundeek gauzatu nahi duten jarduera zehatz bakoitzaren lan-egitasmoa igorri beharko diote ingurumen-organismoari. Organo honek izango du horiek onartzeko eta beharrezkotzat jotzen dituen baldintza guztiak ezartzeko eskumena.

Era berean, 199/2006 Dekretuaren 10. artikulua hau dio:

Egiaztapena lortu nahi duten erakundeek ingurumen-organismoaren aurrean aurkeztu beharko dute eskaera, burutu nahi dituzten jarduerak egiteko beharrezko bitarteko eta esperientzia dutela bermatzen duen dokumentazioarekin batera. Egiaztapen-eskaerari honako dokumentuak erantsi beharko zaizkio zehazki:

- a) Erakundearen sorrerako eratze-eskrittura edo araua.
- b) Bulegoen helbidea.
- c) UNE-EN ISO/IEC 17020 Arauaren arabera, ikuskaritza-erakunde gisa egiaztatua izatearen ziurtapena, 3. artikuluko lehen ataleko jarduerentzat, betiere Dekretu honetako Bigarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoa kaltetu gabe.
- d) Egiaztatu nahi diren lanetan aritzen diren langileen zerrenda, beren mailak, espezialitateak, curriculumak eta zehaztutako arloen frogagiriak. Aurreko atalean aipaturiko ziurtagiria beharrezkoa den kasuetan, egiaztatu nahi diren lanetan aritzen diren langileak ikuskari direla aitortu behar ditu ziurtagiri horrek.
- e) Erakundeak bere funtzioak burutzeko dituen instalazioen, ekipoen eta elementu materialen zerrenda.
- f) Indusketa eta metatze-lanetan oinarrituta ez dauden berreskurapen-neurriak erabili nahi dituzten erakundeen kasuan [3. artikuluko lehen ataleko d) epigrafea], aplikatu beharreko teknologiar dagokion proiektua, ID Eranskinean araututako edukiarekin.
- g) Erakunde eskatzaileak egiaztapenaren objektu izango diren jarduerak gauzatzeko kontratatutako dituen baliabide teknikoaren eta giza baliabideen zerrenda.



- h) Egiaztapena eskatu den jarduera guztietarako dituen prozedura idatzien kopia, 4. artikulua araberako bateraezintasunak saihesteko helburua dutenak barne.
- i) Bere jardueretatik eratorritako erantzukizunak biltzen dituen aseguru-polizaren kopia.
- j) Espezializatuta dauden beste erakunde batzuekin izenpetutako akordioen egiaztagirak, betiere beharrezkoa bada.
- k) Jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren baimenak, lizentziak, erregistroetako inskripzioak edota bestelako baldintzen egiaztagirak.

Lehen xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

Ingurumen-organoak aintzatetsi egingo du beste autonomia erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko Estatuetakoko erakunde ofizialek emandako egiaztapenen balioa, betiere erakunde horiek exigitutako baldintza eta betebeharrak Dekretu honetan ezarritakoen baliokideak badira.

Azkenik, 199/2006 Dekretuaren I. eranskinean ziurtatutako erakundeek bete beharreko baldintzak ezartzen ditu:

A) Betebehar administratiboak:

- a) Berezko nortasun juridikoa izatea. Lurzoruaren kalitatea ikertu eta berreskuratzea ez, baizik eta beste funtzio batzuk burutzen dituzten organismoetako zati diren erakundeek identifikagarriak izan beharko dute organismo horren barruan.
- b) Bere funtzioak, antolamendua, erantzukizunak eta hierarkia deskribatzen dituen barne-dokumentazioa izatea.
- c) Egiaztatutako jardueretatik eratorritako erantzukizunak barnean hartzen dituen aseguru-poliza izatea. Jarduerak egiten diren unetik gutxienez urtebeteko estaldura izan behar du aseguru-polizak, eta gutxienez honako irismenak ere izan behar ditu:
 - c-1.- Egiaztatutako erakundearen jarduera-eremuak hirugarren artikuluko lehen ataleko a), b), e), f) edo g) epigrafeek zehaztutako edozein jarduera hartzen badu bere baitan: 1.210.000 euro.
 - c-2.- Egiaztatutako erakundearen jarduera-eremuak hirugarren artikuluko lehen ataleko c) edo d) epigrafeek zehaztutako edozein jarduera hartzen badu bere baitan: 1.400.000 euro.
 - c-3.- Egiaztatutako erakundearen jarduera-eremuak c-1) eta c-2) ataletako jarduerak hartzen baditu bere baitan: 1.600.000 euro.

B) Antolakuntza-betebeharrak:

- a) Egiaztatutako erakundeak gutxieneko giza baliabide batzuk dituen antolamendu-egitura bat izan behar du. Hala, ezinbestekoa da erakundeak plantillan hurrengo langileak izatea:
 - Egiaztatutako erakundearen jarduera-eremuak lurzoruaren kalitate-ikerketak taxutu eta gauzatzeko, kontrol-neurriak taxutu eta jarraipena



egitea, eta prebentzio zein defentsa-neurrien gauzatzea ikuskatzea bakarrik hartzen baditu bere baitan [hirugarren artikuluko lehen ataleko a), e), f) eta g) epigrafeak], edo berreskuratzeko neurriak taxutu edo/eta ikuskatzea bakarrik [hirugarren artikuluko lehen ataleko b) edota c) epigrafeak], plantillak gutxienez hurrengo langileak izan beharko ditu:

- Geologia Zientzietako bigarren zikloko goi-mailako tituludun bat,

- Geologia Zientzietako, Biologiako edota Kimikako espezialitateetako bigarren zikloko goi-mailako bi tituludun - espezialitate ezberdina izan behar dute,

- eta egiaztapena eskatu den jarduerekin lotutako ezagutza-eremuetako lehen zikloko goi-mailako bi tituludun.

- Egiaztatutako erakundearen jarduera-eremuak lurzoruaren kalitate-ikerketak taxutu eta gauzatzea, kontrol-neurriak taxutu eta jarraipena egitea, eta prebentzio zein defentsa-neurrien gauzatzea ikuskatzea bakarrik hartzen baditu bere baitan [hirugarren artikuluko lehen ataleko a), e), f) eta g) epigrafeak], edo berreskuratzeko neurriak taxutu edo/eta ikuskatzea bakarrik [hirugarren artikuluko lehen ataleko b) edota c) epigrafeak], plantillak gutxienez hurrengo langileak izan beharko ditu:

- Geologia Zientzietako bigarren zikloko goi-mailako tituludun bat,

- Kimikako, Biologiako edo Geologia Zientzietako bigarren zikloko goi-mailako tituludun bat,

- eta egiaztapena eskatu den jarduerekin lotutako ezagutza-eremuetako lehen zikloko goi-mailako tituludun bat.

- Egiaztatutako erakundeak indusketa eta metatze-lanetan oinarritutako ezberdinak diren berreskuratze-neurriak erabiltzen baditu [hirugarren artikuluko lehen ataleko d) epigrafea], plantillak aplikatu behar den tratamendu teknikarekin lotutako ezagutza eremuetako bigarren zikloko bi goi-mailako tituludun izan behar ditu gutxienez. Plantillako langile-kopuruak eta beren prestakuntzak egin behar dituzten lanei egokituta egon beharko dute, eta baita proposatutako baliabide teknikoaren ahalmenari eta funtzionamendu-erregimenari.

b) Proiektuburu bat eta bigarren zikloko beste goi-mailako tituludun bat izan beharko dira gutxienez, eta biek a) epigrafean azaltzen diren ekipoetan integratuta egon beharko dute. Era berean, 5 eta 2 urteko esperientzia frogatua izan behar dute, hurrenez hurren, egiaztapena eskatu den eremuetan.

c) UNE-EN ISO/IEC 17020 Arauaren arabera, ikuskaritza-erakunde bezala ziurtatuta egotea .

C) Baliabide teknikoetarako betebeharrak:

Ingurumen-organoak emandako egiaztapenak barnean hartzen dituen jarduera guztiak egiteko baliabide teknikoak izan behar ditu erakundeak, betiere Dekretu honetako II.



Eranskinean ezartzen diren lurzoruaren kalitate-ikerketen gutxieneko edukiari eta irismenari jarraiki.

D) Hirugarren artikuluko lehen ataleko d) epigrafeko jarduerak egiten dituzten erakundeentzako betebeharrak espezifikak:

Erakunde eskatzaileak aplikatu beharreko teknologiarik edo teknologiei dagokien proiektua aurkeztu beharko du egiaztapen-eskaerarekin batera. Eskaera horrek hurrengo dokumentazioa eduki behar du:

a) Memoria:

- Lurzoru-tipologiak eta horietan dauden kutsatzaile tratagarriak, tratamenduaren parametro mugatzaileak zehaztuz eta justifikatuz.
- Tratatu diren lurzoru-eremurako hobezina dela bermatzen duten teknologiarik loturiko justifikazio teknikoaren deskribapen teknikoak: instalazioaren neurri guztien, bere prozesuaren eta beste elementu batzuen justifikazioa, adibidez errektiboaren dosifikazioa, prozesu parametroak (tenperaturak, denborak...), analisiak, eta tratamenduaren aurretik, zehar eta ostean egin beharreko kontrol eta probak - beharrezkoa denean, tratagarritasun-saiakuntza eta ikerketak ere egingo dira-.
- Prozesuaren eskema orokorra.
- Instalazioaren eskema funtzionala. Materien eta energiaren balantzeak.
- Instalazioaren funtzionamenduan zehar kutsadura lurzoru ez den beste ingurune batera eraman ahal izatearen kontrol, antzemate eta zuzenketa-neurrien deskribapena eta justifikazioa. Besteak beste, hurrengo neurriak sartu behar dira:
 - Sortutako ur kutsatuak eta lixibiatuak tratatu eta biltzeko aurreikusitako neurriak.
 - Atmosferara isurpenak egitea saihesteko prebentzio-neurriak.
- Ikuskapen eta funtzionamendu-proben, saiakuntzen eta analisisien deskribapena.
- Mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaileak egiteko moduaren deskribapena eta justifikazioa, eta baita instalazioko elementuak mantentzearena ere.
- Aplikatu beharreko araudia.

b) Planoak:

Instalazioaren hurrengo planoak aurkeztu beharko dira:

- Multzoaren planoak.
- Plantak, altxaerak eta sekzioak.
- Instalazioak definitzeko eta ezagutzeko beharrezkoa den edozein erreferentzia.



c) Lurzoruen tratamenduekin lotuta izandako lan-esperientzien zerrenda.

Dekretu honetako 3.4 artikulua aipatutako lan-egitasmo espezifikoak hurrengo datuak jaso beharko ditu gutxienez:

- Lurzoruaren tipologia, zehaztapena eta tratatu beharreko kopuruak, jarduera zehatz bakoitzerako akreditatutako tratamenduaren egokitasuna justifikatuz.
- Lan-sistema operatiboa, barne hartzen dituela erreaktiboan dosifikazioa, prozesuko parametroak (temperaturak, denborak...), analisiak, kontrolak eta probak, lurzoruaren tratamenduaren aurretik, zehar eta ostean egin beharrekoak, tratamenduaren egokitasuna bermatu ahal izateko.
- Berreskurapen-lanetan ariko diren teknikarien zerrenda.

5. 2014ko maiatzaren 27an, Eusko Legebiltzarrak lurzoruen kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko Lege Proiektuaren izapidea onartzea adostu zuen³. Lege Proiektu horrek, Legebiltzarrean onartuz gero, 1/2005 Legea indargabetuko luke.

Proiektuak mantendu egiten du lurzoruen kalitateari loturiko zenbait jarduera gauzatzeko ziurtapena izateko betekizuna. Horrela, 48 artikulua honela dio:

- 1.- Baimena nahitaezko baldintza izango da, honako hauek egin ahal izateko: miaketazko ikerketa, ikerketa xehea eta lurzoruaren kalitatearen azken egoeraren ikerketa diseinatu eta egin; lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenak lortzeko lurzoruaren egoeraren txostenak landu; lurzoru oneratzeko neurriak diseinatu, gainbegiratu eta, hala badagokio, bete; gaika hondeatzeko planak landu eta gainbegiratu; kontrol- eta segimendu-neurriak diseinatu eta bete; prebentzio- eta babes-neurriak diseinatu eta nola betetzen diren gainbegiratu. Era berean, nahitaezkoa izango da baimena, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak lege honen arabera bere esku dituen eginkizunetan administrazioarekin elkarlanean aritzeko.
- 2.- Autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak baimenduko ditu baimentzea eskatzen duten entitateak, araudi bidez ezartzen diren baldintzen eta prozeduraren arabera (...).

III.- GAIAREN AZTERKETA

1.- Araubide onaren printzipioak.

6. Espainiako Konstituzioko 38. artikulua enpresen askatasuna onartzen du merkatu-ekonomiaren esparruan eta, aldi berean, botere publikoei horien jardunbidea bermatzeko eta babesteko betebeharra ezartzen die. Hala, Administrazio Publiko guztiek zaindu behar dute lehia librea eraginkorra izatea

³ Legebiltzarreko aldizkari ofiziala, 83. zk., 2014ko maiatzaren 30a.



baina, gainera, behar bezala erregulatu behar dute, lehiaren ikuspegitik, justifikaziorik gabeko mugak txertatzea saihestuko bada⁴.

7. Zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko 17/2009 Legearen 5. artikulua honako hau ezartzen du⁵:

Zerbitzu-jarduera bat eskuratzeko edo horretan jarduteko arautegiak **ezingo die zerbitzu-emaileei baimen-erregimen bat inposatu**, salbuespen gisa izan ezik eta, betiere, honako baldintza hauek betetzen badira, erregimenak ezartzen duen legean behar bezala arazoituta:

a) **Ez-bereizkeria**: baimen-erregimenak ez du bereizkeria zuzenean edo zeharka sustatu behar nazionalitatearen arabera edo establezimendua aginte eskudunaren lurraldean egotearen edo ez egotearen arabera, edota, sozietateei dagokienez, egoitza sozialaren kokapenaren arabera;

b) **Premia**: baimen-araubidea ordena publikoa, segurtasun publikoa, osasun publikoa eta ingurumenaren babesa direla medio justifikatuta egotea, edo baliabide naturalen eskasiak edo eragozpen tekniko nabariak izateak merkatuko eragile ekonomiko kopurua mugatzen badute.

c) **Proporzionaltasuna**: araubide hori tresnarik egokiena izatea lortu nahi den helburua erdietsiko dela bermatzeko, emaitza bera lortzeko aukera ematen duen eta hain murriztailea ez den beste neurririk ez dagoelako, bereziki geroagoko kontrola beranduegi egiten denean egiazki eraginkorra izateko. Hala, zerbitzu-jarduera baten sarbidea inolaz ere ez da izango baimen-erregimen baten arabera zerbitzu-emailearen komunikazio bat edo adierazpen arduratsu bat aski denean, eskatzen diren baldintzak betetzen direla adieraziz eta aginte eskudunari jarduera kontrolatzeko beharrezko informazioa eskuratuz⁶.

8. Bestalde, Omnibus Legeak artikulua berri bat ekarri zuen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio. Prozedura Erkidearen

⁴ Lehia erregulatzeari dagokionez nabarmentzekoa da Lehiaren Espainiako Batzordeak egindako txosten bat, 2008ko ekainean argitaratu zena, hots, *Merkatuak eraginkortasun handiagoz eta lehia sustatuz erregulatzeko Administrazio Publikoentzako gomendioak*. Txosten horretan, lehia sustatzen duen erregulazio batek kontuan hartu beharreko printzipioak ezartzen ziren, hots: beharra eta proporzionaltasuna; distortsio minimoa; eraginkortasuna; gardentasuna; eta aurreikusgarritasuna. LEHIAREN ESTATUKO BATZORDEA, "Gomendioak herri administrazioei, merkatuen erregulazio eraginkorragoa izateko eta lehia bultzatzeko", Madril, 2008.

⁵ Zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 5. artikulua (BOE, 283. zk., 2009ko azaroaren 24koa).

⁶ Merkatu-batasuna bermatzeari buruzko abenduaren 9ko 20/2013 Legea arabera (BOE, 295. zk., 2013ko abenduaren 10koa).



Legera ⁷. Artikulu horrek (39 bis) administrazio publikoek jarduerak garatzeko erabili behar dituzten printzipioak ezartzen ditu. Araubide onaren printzipioak (edo *better regulation*) deritzenak dira.

Artikulu horren 1. atalak ezartzen du administrazio publikoek, beren eskumenetan jardutean, banakako eskubideak edo eskubide kolektiboak mugatzen dituzten edota jarduera bat gauzatzeko baldintzak zehazten dituzten neurriak ezartzen dituztenean:

- murriztapen gutxien eragiten duena aukeratu behar dutela.
- interes publikoa babesteko beharrezkoa direla arrazoitu behar dutela.
- lortu nahi diren helburuetarako egokitasuna justifikatu behar dutela, inolaz ere bereizkeriazko tratu-desberdintasunak gertatu gabe.

9. Ekonomia Jasangarriaren Legeak, 3. artikuluan, botere publikoek jarduera gidatzeko eta ekonomiaren jasangarritasuna sustatzeko erabili behar dituzten printzipioak ezartzen ditu. Horien artean, lehiakortasuna hobetzeko printzipioa dago⁸:

Administrazio Publikoek enpresen lehiakortasuna sustatu behar dute, ondasun eta zerbitzuen merkatuetan lehiari eta eraginkortasunari laguntzeko, ekoizpen-baliabideen esleipena errazteko eta produktibitatea hobetzeko (...).

Gainera, arau horren 4. artikulua "Administrazio Publikoen arau-ekimenetan aplika daitezkeen araubide oneko printzipioak" jasotzen ditu, erregulazioa hobetzeari, behar-printzipioei, proportzionaltasunari, segurtasun juridikoari, gardentasunari, irisgarritasunari eta sinpletasunari buruzko kapituluaren barruan. Aipatu ezaugarri horiek administrazio publikoen jarduerak zuzendu behar dituzte, eta behar bezala justifikatuta geratu behar da arau-ekimenetan printzipio horietara egokitzen direla.

Jarraian, artikulu horrek printzipio bakoitzari buruz dioena jasoko dugu:

- **Beharrian** printzipioa: interes orokorreko arrazoi batekin justifikatu behar dela ekimena.
- **Proporzionaltasun** printzipioa: proposatzen den arau-ekimenak helburua lortzea bermatuko duen tresna egokiena izan behar du, emaitza bera lortzeko aukera ematen duten neurri hain murriztailerik eta distortsionatzailerik ez dagoela egiaztatu ostean.

⁷ Abenduaren 22ko 25/2009 Omnibus Legea, zenbait lege aldatzen dituen zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko legera egokitzeko, bai eta 30/1992 Legea ere, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio. Prozedura Erkidearen Legea.

⁸ 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, ekonomia iraunkorrari buruzkoa, (EAO, 55. zk., 2011ko martxoaren 5koa).



- **Segurtasun juridikoaren** printzipioa: arautze-ekimenaren ahalmenetan koherentziaz jardun behar da ordenamenduaren gainerakoari dagokionez, arau-esparru egonkor eta aurreikusgarria sortzeko, ziurtasun-ingurune bat sortuz, herritarrak eta enpresak errazago ari daitezen, eta erabaki ekonomikoak errazago har ditzaten.
- **Gardentasun** printzipioa: erregulazioaren eta justifikazioaren helburuek argi definituta egon behar dute.
- **Irisgarritasun** printzipioa: tartean diren eragileekin kontsulta-mekanismoak ezarriko dira, horien partaidetza aktiboa sustatzeko arauak prestatzeko prozesuan, orobat indarrean dauden arautegiak modu simple eta unibertsalean eskuratzeko.
- **Sinpletasun** printzipioa: argi eskatzen du edozein arautze-ekimenek xede izan behar duela arau-esparru simple, argi eta gutxi sakabanatua lortzea, errazago ezagutu eta ulertua izateko.
- **Eraginkortasun** printzipioa: arau-ekimenaren oinarrian lortu nahi diren helburuak argi identifikatu behar dira, helburu zuzenak ezarriz eta azken helburu horiek lortzeko beharrezkoak ez diren kargak saihestuz.

2.- Sarrera-oztopoak.

10. Sarrerako oztopotzat hartzen dira operadore berriak merkatu jakin batean sartzeko izaten diren zailtasun eta kostu guztiak; batzuetan, zailtasun eta kostu horiek ezinezko bihurtzen dute operadore berrien sarrera⁹.

Sarrerako oztopo horien artean, legezkoak, tekniko-ekonomikoak eta dagoeneko merkatuan dauden enpresek duten posizio finkatutik eratorritakoak bereizten ditugu¹⁰.

11. Administrazio publikoek merkatu batean sartzen uzten ez duten edo sarrera mugatzen duten legezko oztopoak ezartzen badituzte, oztopo horiek zenbait eskakizun bete behar dituzte, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko 17/2009 Legeak dioena betez¹¹:

⁹ LEHIAREN DEFENTSARAKO AUZITEGIA *Kontzentrazio Ekonomikoen Espedientearen Txostena C89/05 Igualatorio Medikoak*, 73. or. <http://www.cnmc.es/es-es/competencia/buscadorde/expedientes.aspx?num=C89/05&ambito=Concentraciones&b=&p=0&numero=C89/05&ambitos=Concentraciones&estado=0§or=0&av=1> (ebazpen honetan erabiltzen diren web gune guztien data 2014ko urriaren 14a da).

¹⁰ Batzordeak kontzentrazio horizontalak ebaluatzeko zuzentarauen 71. atalean ezarritako irizpideak, Kontseiluaren arautegiaren arabera, enpresen kontzentrazioari buruzko kontrolari dagokionez (2004/C 31/03). EBAO C 31/5, 2004eko otsailaren 5ekoa. <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:C:2004:031:0005:0018:es:PDF>.

¹¹ Zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 5. artikulua (BOE, 283. zk., 2009ko azaroaren 24koa). 20/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, merkatu-batasuna bermatzeari buruzkoaren arabera (BOE, 295. zk., 2013ko abenduaren 10ekoa).



- Bereizkeriarik ez egitea naziotasunagatik edo establezimenduaren kokapenagatik edo gizarte-egoitzagatik.
- Beharra: ordena publikoagatik, segurtasun publikoagatik, osasun publikoagatik edo ingurumenaren babesagatik justifikatuta egotea, edo natura-baliabideen eskasiagatik edo ezin nahasizko eragozpen teknikoak direla eta, merkatuko operadore ekonomikoen kopurua mugatua bada.
- Proporzionaltasuna: mugaketa helburua lortzea bermatuko duen tresna egokiena izatea, emaitza bera lortzeko aukera ematen duten neurri hain murriztailerik ez dagoelako.

Bereizkeriarik ezaren, beharraren eta proportzionaltasunaren eskakizunak betetzen ez dituzten legezko oztopoak egotea eragozpen bat da zerbitzuak oztoporik gabe emateko, eta, beraz, eragozpen bat da eragindako merkatuan lehia efektiboari eusteko.

Sarrerako oztopoek eragin negatiboak sortzen dituzte ezartzen diren ekonomietan, lehiaren tentsioa handitu dezaketen operadore berrien sarrera sustatzen ez dutelako, eta, horren ondorioz, zerbitzuak emateko baldintza hobeak ez direlako sortzen. Merkatuetan sarrerako oztoporik ez egoteak enpleguak sortzea, berrikuntza eta lehiaren hobekuntza sustatzen dute.

Horregatik, administrazioak arrazoirik gabeko oztopoak sortzea eragotzi behar du, eta horrelakorik balego, lehiako agintaritzak esku hartu beharko luke, dagozkion sustapen-gaitasunak erabiliz, edo, Legea baino maila txikiagoko arauen kasuak, aurkaratzeko gaitasunak erabiliz.

12. Legeak merkatuan sartzeko neurri murriztaile bat ezartzen badu, arrazoiak adieraziz egiaztatu beharko du bereizkeriarik eza, beharra eta proportzionaltasuna betetzen dituela.

3.- Ziurtapenak honako jarduera hauetarako gaitzen du:

13. Ziurtapena eskatzen duten jarduerak lurzoruaren kalitatearekin erlazionatuta daude eta honako hauek dira:

- Lurzoruaren kalitatearen miaketazko ikerketa edo/eta ikerketa xehatua diseinatu eta gauzatzea, beharrezkoa denean analisi kimikoak in situ eginez.
- Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko neurriak diseinatzea.
- Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko neurriak gauzatzen direla ikuskatzea.
- Lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko neurriak gauzatzea, in situ, on site edo off site tratamendu-tekniken bidez. Salbuespenak izango dira instalazio



finkoetan egindako berreskurapenak edo indusketa eta metatze kontrolatuetan oinarritutakoak.

- Berreskuratzeko neurriak hartu eta gero geratutako lurzoruaren kalitatearen ikerketak diseinatu eta gauzatzea.
- Lurzoruaren kalitatearen kontrolerako eta jarraipenerako neurriak diseinatu eta gauzatzea.
- Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpen baten edukia osatzen duten prebentzio edo/eta defentsarako neurriak diseinatu eta ikuskatzea.

14. 199/2006 Dekretuan ziurtapena eskuratzeko eskatzen diren betekizunak administratiboak, antolamenduzkoak eta baliabide teknikoei loturikoak izan daitezke.

Baldintza horien artean daude funtsezko minimoak (nortasun juridikoa), egiturazkoak (langileria eta gutxieneko titulazioa, aseguruak, gutxieneko esperientzia duten proiektuburuak) eta formalak (funtzioak eta hierarkia deskribatzen dituen barne dokumentazioa, kanpo ziurtapenak). Enpresek baldintza horiek bete behar dituzte ziurtapena eskuratzeko eta, ondorioz, arauan deskribatutako jarduerak gauzatu ahal izateko.

Gainera, eskakizun espezifikokoak jasotzen dira lurzoruaren kalitatea berreskuratzeko in situ, on site edo off site tratamendu-tekniken bidez neurriak gauzatzeaz arduratzen diren enpresei eska dakizkiekeenak. Salbuespenak izango dira instalazio finkoetan egindako berreskurapenak edo indusketa eta metatze kontrolatuetan oinarritutakoak. Kasu horietan, ziurtapena egoteak ez du esan nahi ziurtatutako erakundeek ez diotenik ingurumen-organoari lan-egitasmoa igorri beharrik. Organo horrek izango du horiek onartzeko eta beharrezkotzat jotzen dituen baldintza guztiak ezartzeko eskumena.

Dena den, enpresek, ziurtapena lortzeko, aplikatuko diren teknologiei buruzko proiektu bat aurkeztu behar dute. Proiektu horretan, dokumentazio ugari aurkeztu behar da, besteak beste, memoria zehatz bat, instalazioen planoak eta "lurzoruen tratamenduan egindako lanen esperientzien zerrenda".

15. Ziurtapena eskuratzeko eskatzen diren baldintzak eta deskribatutako jarduerak gauzatu ahal izateko baldintza horiek beharrezkoak izatea direla eta, merkatu horretan ezin dute parte hartu profesional autonomoek eta zenbait enpresak, beren tamainarengatik edota bestelako antolamendu-egoera edo egoera teknikoak direla eta, ez dituztenean eskatutako baldintzak betetzen.

Beraz, aztertu behar da ea ez-bereizkeriako, behar eta proportzionaltasun baldintzak al dauden eragindako merkatuan jarduteko ziurtapena eskatzen



denean, orobat ea baldintza horiek behar bezala arrazoitzen diren indarrean den 1/2005 Legean edota, hala badagokio, hori indargabetzen duen Lege Proiektuan.

4.- Legezko zioak egotea.

A. 1/2005 Legea.

16. 1/2005 Legearen zioen azalpenean, VI. kapitulari dagokionez, hor baitago txertatuta 36. artikulua (lurzoruen ikerketarako eta berreskuratzeko ziurtatutako erakundeak), honako hau esaten da soilik:

VI. kapituluan, lurzoruen politikan herri-administrazioen ardura diren bitartekoak jasotzen dira; arlo horretan egiten dituzten ekintzak gidatzen dituzten printzipioak eraginkor bihurtzeko bitartekoak.

Aipatutako bitartekoak hauek dira: lurzoria kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dauden lurzoruen inbentarioa; jarduteko jarraibideak eta lehentasunak finkatuko dituen lurzoruen plana; Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroa, zeinak ingurumengaietan informazioa lortzeko eskubideaz baliatzeko bidea emango duen; legean xedatutako eginbeharrak betetzera bultzatzeko diru-laguntzak; eta finantzaketa publikorako mekanismoak.

17. Zioen azalpenean ez dira azaltzen ziurtapenaren baldintza exijitzeko arrazoiak. Gainera, ez da aipatu ere egiten 36. artikulua, nahiz eta, 39. artikulua salbuespenarekin (ikuskapena eta zaintza), VI. kapitulu horretako gainerako artikulua zerrendatzen diren, hala nola 33. artikulua (lurzoria kutsa lezaketen jarduera edo instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioa); 34. artikulua (Lurzoruen Plana, jardunbideak eta lehentasunak ezartzen dituen); 35. artikulua (Lurzoruen Kalitatearen Administrazio Erregistroa, ingurumenari loturiko informazioa eskuratzea errazten duena); 37. artikulua, legean jasotzen diren betebeharrak betetzea sustatzeko diru-laguntzei eta 38. artikuluan jasotzen diren finantzaketa publikoko mekanismoei buruzkoa.

36. artikulua ere ez du azaltzen ziurtapena eskatzeko arrazoia eta soilik adierazten du behar-beharrezkoa izango dela Legean adierazten diren lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketak egiteko eta berreskuratzeko neurriak diseinatzeko eta gauzatzeko.

18. Ondorioz, 1/2005 Legeak ez du behar bezala arrazoitzen ez-bereizkeria, behar eta proportzionaltasun baldintzak egoteko baldintza, 17/2009 Legearen 5. artikuluan ezartzen denarekin bat.



B. Lege-proiektua.

19. Lurzoruen kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko 1/2005 Lege Proiektuaren zioen azalpena eta 1/2005 Legearen zioen azalpena oso antzekoak dira. Hartara, honako hau adierazten du, 48. artikulua txertatuta dagoen VII. kapituluari dagokionez (Lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko ziurtatutako erakundeak):

VII. kapituluan, lurzoruen politikan herri-administrazioen ardura diren bitartekoak jasotzen dira; arlo horretan egiten dituzten ekintzak gidatzen dituzten printzipioak eraginkor bihurtzeko bitartekoak.

Aipatutako bitartekoak hauek dira: lurzoria kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dauden lurzoruen inbentarioa; jarduteko jarraibideak eta lehentasunak finkatuko dituen lurzoruen plana; Lurzoruaren Kalitatearen Administrazio Erregistroa, zeinak ingurumen-gaietan informazioa lortzeko eskubideaz baliatzeko bidea emango duen; lurzoruak ikertu eta oneratzeko baimendutako entitateak; legean xedatutako eginbeharrak betetzera bultzatzeko diru-laguntzak; eta finantzaketa publikorako mekanismoak. Bitarteko horiei dagokienez, komenigarria da zehaztea estatuko oinarrizko legerian ezarrita dagoen kutsatutako lurzoruen inbentarioko edukia Lurzoruen Kalitatearen Administrazio Erregistroan dagoela jasota.

20. 1/2005 Legearen zioen azalpenean gertatzen denaren aurka, zioen azalpen honetan aipatu egiten da lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko ziurtatutako erakundeak daudela.

Baina ez du azaltzen zergatik aukeratzen den sistema hori, hain murriztatzaileak ez diren beste sistema batzuen aurrean, hala nola komunikazio edo deklarazio arduratsuaren aurrean.

48. artikulua ere ez du azaltzen ziurtapenaren baldintza zerk sortzen duen. Baimena nahitaezko baldintza izango da, honako hauek egin ahal izateko: miaketazko ikerketa, ikerketa xehea eta lurzoruaren kalitatearen azken egoeraren ikerketa diseinatu eta egin; lurzoruaren erabilera-gaitasunaren adierazpenak lortzeko lurzoruaren egoeraren txostenak landu; lurzoria oneratzeko neurriak diseinatu, gainbegiratu eta, hala badagokio, bete; gaika hondeatzeko planak landu eta gainbegiratu; kontrol- eta segimendu-neurriak diseinatu eta bete; prebentzio- eta babes-neurriak diseinatu eta nola betetzen diren gainbegiratu. Era berean, nahitaezkoa izango da baimena, autonomia-erkidegoko ingurumen-organoak lege honen arabera bere esku dituen eginkizunetan administrazioarekin elkarlanean aritzeko.



21. Ondorioz, lurzoruetako kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko lege-proiektuak ere ez du behar bezala arrazoitzen ez-bereizkeria, behar eta proportzionaltasun baldintzak egoteko baldintza, 17/2009 Legearen 5. artikuluan ezartzen denarekin bat.

5.- Ziurtapenak errespetatu behar dituen printzipioen analisia

A. Beharraren baldintzaren analisia.

22. 17/2009 Legearen 5. artikulua zehazten du beharraren baldintza. Hain zuzen ere, ordena publiko, segurtasun publiko, osasun publiko edo ingurumenaren babesagatik baimenen araubide bat justifikatzea, edo naturalialibideen eskasiak edo ezin nahasizko eragozpen teknikoek merkatuko operadore ekonomikoen kopurua mugatzen badute.

23. Arautegiak sor ditzakeen lehia-arazoak egiaztatze aldera, Lehiaren Euskal Agintaritzak erkidegoko arautegian ezarritako baldintza horren behar eta proportzionaltasuna justifikatzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Administrazio Zuzendaritzari. Zuzendaritza horrek erantzun zion "ziurtapena beharrezkoa dela, azken helburua ingurumena babestea delako". Era berean, adierazi zuen baimen-erregimenetan ezarri beharreko ez-bereizkeriaren baldintza betetzen dela; izan ere, ingurumen-organismoak aintzatetsi egiten du beste autonomia erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko Estatuetakoa erakunde ofizialek emandako egiaztapenen balioa, betiere erakunde horiek exigitutako baldintza eta betebeharrak Dekretu honetan ezarritakoen baliokideak badira.

24. Lehiaren Euskal Agintaritzaren iritziz, ingurumena babesteak lurzoruen kalitateari loturiko jarduerak egiteko merkatua profesional autonomoek edo 199/2006 Dekretuko I. eranskineko baldintzak betetzen ez dituzten enpresei mugatzen dieten baldintzak justifikatu ahal izateko, argi azaldu behar da halakoek parte hartzeak arrisku larrian jartzen duela ingurumenaren babesa. Hain zuzen ere, ingurumenarekin erlacionatutako jarduerak, ingurumenarekin erlacionatuta egote hutsagatik, ez dute zertan egon merkatu sarbideari dagokionez erregimen murriztatzaileenean.

25. Ziurtatuta egotearen eta baldintzak betetzearen betebeharra balioeste aldera, 10. atalean konparazio bat egiten da erregulazio honen eta



ingurumenerako bereziki arriskutsuak diren jardueren ingurumen-ikerketak arautzen beste arautegi batzuetako betekizunen artean.

Batetik, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legea azter daiteke¹². Arau horrek soilik eskatzen du, 16. artikuluan, hasierako agiri estrategikoa, ingurumen-azterketa estrategikoa eta ingurumen-agiri estrategikoa, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren kasuan, eta hasierako agiria, ingurumen-inpaktuaren azterketa eta ingurumen-agiria, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren kasuan, gaitasun tekniko nahikoa duten pertsonak egin behar dituztela, lanbide-kualifikazioei eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera. Legeak ezartzen du ikerketek behar adina kalitate izan behar dutela ezartzen diren eskakizunak betetzeko. Horregatik, aipatutako ingurumen azterketa eta dokumentuek egilea edo egileak identifikatu behar dituzte, haien titulazioa eta, hala badagokio, erregulatutako lanbidea adieraziz. Horrez gainera, amaiera-data eta egilearen sinadura ere jaso behar dira.

Bestalde, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 legea azter daiteke¹³. Oinarrizko izaera duen arau horrek hondakinak tratatzeko jarduera bat edo gehiago egiteko ziurtapenik gabeko baimen-erregimena ezartzen du, orobat hondakin arriskutsuak ekoizteko eta kudeatzeko zenbait jarduerarako aurretiazko komunikazioa. Jarduera horiek, aurkakoa behar bezala justifikatu ezean, 199/2006 Dekretuaren 3. artikulua jasotzen dituenak baino arriskutsuagoak dirudite ingurumenerako¹⁴.

¹² 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa (BOE, 296. zk., 2013ko abenduaren 11koa).

¹³ 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, (BOE, 181. zk., 2011ko uztailaren 29a).

¹⁴ Erkidegoko arautegi konparatuak merkatuan sartzeko oztopo izan daitezkeen betekizunak eskatzen ez diren adibideak eskaintzen ditu. Hala, Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoak Ingurumen Prebentzioko Legea aldatu zuen (apirilaren 8ko 11/2003 Legea, Gaztela eta Leongo Ingurumen Prebentziari buruzkoa, (BOE, 103. zk., 2003ko apirilaren 30koa). Aldaketa horretan, ingurumen-ikerketak idazten zituzten ekipo edo enpresak erregistratzea desagerrarazten zen, aipatu ekipo edo enpresen titulazioa, ahalmena eta esperientzia egiaztatzeke baldintza gisa ezartzen zena.

Hala, Zerbitzu Jarduerak Sustatzeko Neurriei buruzko 3/2009 Lege Dekretuak eragindako aldaketak (Gaztela eta Leonen Zerbitzu Jarduerak Sustatzeko Neurriei buruzko abenduaren 23ko 3/2009 Lege Dekretua, GLAO, 247. zk., 2009ko abenduaren 26a) soilik ezartzen du ingurumen-inpaktuko azterketak behar bezalako titulazio, ahalmen eta esperientzia duten profesionalak egin behar dituztela.

Azkenik, 2014ko azaroaren 17tik aurrera, urriaren 14ko 8/2014 Legeak (urriaren 14ko 8/2014 Legea, Gaztela eta Leongo Ingurumen Prebentziari buruzko apirilaren 8ko 11/2003 Legea aldatzen duena, GLAO, 200. zk., 2014ko urriaren 17a) berriro aldatzen du ingurumen-inpaktuko azterketak idazteko eskatzen diren baldintzei buruzko artikulua. Hartara, ezartzen du, hasierako



26. Ondorioz, adierazi behar da txosten honen xede diren lurzoruen kalitateari loturiko jarduerak gauzatzeko ziurtapena eskatzeak ez duela 17/2009 Legearen 5. artikuluan eskatzen den beharrian baldintza betetzen.

B. Proporzionaltasunaren baldintzaren analisia.

27. 17/2009 Legearen 5. artikulua proporzionaltasunaren baldintza zehazten du. Hain zuzen, esaten du lortu nahi den helburua bermatzeko tresna egokiena erabili behar dela, ez dagoelako emaitza bera lortzeko aukera ematen duen hain murriztailea ez den neurririk.

28. Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzak, 199/2006 Dekretuaren 3. artikuluan zerrendatzen diren jarduerak egiteko ziurtapena beharrezkoa dela ingurumena babesteari buruzko erreferentzia sinple batekin justifikatu du. Dena den, ez du arrazoitzen zergatik den erregistroan inskribatzea tresnarik egokiena nahi den helburua lortzeko, eta ez du arrazoitzen hain murriztaileak ez diren beste neurri batzuek (esate baterako, baimena, jakinarazpena edo erantzukizun-aitorpena) zergatik ez duten aukerarik ematen helburu bera lortzeko.

Lehiaren Euskal Agintaritzak jotzen du, oso konplexuak diren lan zehatzak egin behar izanez gero, zenbait betekizun eskatzea proporzionala izan daitekeela.

Baina hain konplexuak ez diren kasuetan, jarduera ingurumena erabat babesten dela bermatuz egin dezakete ziurtapena lortzeko ezartzen diren eskakizunetako baten bat betetzen ez duten eragileek ere, batez ere, kontuan hartzen badugu ziurtapenak lortzeko baldintzak enpresak kontratatuta dituen profesionalen kopuruan oinarritzen direla, proiektu zehatz batean jarduten ari diren bermatu gabe eta eskatutako betekizunaren eta jardueraren artean proportziorik egon gabe. Izan ere, lehenik eta behin, posible da jarduera batzuetarako hain beharrezkoa ez izatea profil guztiek zerbitzu zehatz berean parte hartzea; bigarrenik, ziurtapena ematen da egiaztatu gabe pertsona horiek egiazki proiektu zehatzean parte hartzen ari direla; eta, azkenik, ez da ziurtatuta geratzen proiekturako pertsona zehatzen zerbitzuak kontratatzean (enpresako langile izan gabe) kalitate-estandarrak murrizten direnik.

Egoera horren aurrean, kasu hauetan guztietan 199/2006 Dekretuak ziurtapena eskatzea desproporzionatua iruditzen zaio Lehiaren Euskal Agintaritzari.

dokumentua, ingurumen-inpaktuko azterketa eta proiektuen ingurumen-dokumentua gaitasun tekniko egokia duten pertsonak egin behar dituztela, goi-mailako hezkuntzari eta kualifikazio profesionaleri buruzko arauekin bat, eta Lege horren eta Estatuko oinarritzko arauaren betekizunak betetzeko adinako kalitatea izango dutela.



Zerbitzu zehatz baterako ziurtapena lortzeko beharrezkoak diren betekizunak ezinbestekoak izanez gero, betekizun horiek kontratuko baldintzetan edo dagokion kontratazioa arautzen duten orrietan jaso daitezke. Horrela, kontratatzaile potentzialen kopurua handitu egin daiteke, lehia askearen eta baliabideen erabilera-eraginkortasunaren onurarako, eta ingurumena babesteko edota segurtasuna bermatzeko helburuak arriskuan jarri gabe.

Horregatik, eta behar bezalako justifikaziorik ez dagoenez, Lehiaren Euskal Agintaritzak ez du uste proportzionala denik 1/2005 Legeko eta Lege Proiektuko ziurtapena modu orokorrean eskatzea, jotzen baitu modu zehatzean eskatu behar dela lizitazio zehatz baterako baldintza-orrietan edota kontratazio-baldintzetan, betiere, ingurumenerako arrisku zehatz bat badago eta / edo administrazioak egindako lanaren kalitatea egiaztatzen bada. Hau da, *ex post* kontrol bat egiten bada.

29. Lehiaren Euskal Agintaritzaren iritziz, behar bezala justifikatu ezean, badaude tresnak ingurumena babestea eta gaitasun profesional eta esperientzia dituzten enpresa edo profesionalak merkatutik ez kanporatzea bateragarri bihurtzeko..

IV- ONDORIOAK

Lehena.- Lehiaren Euskal Agintaritzak jotzen du ziurtapena eskatzea merkatuan sartzeko oztopo bat dela eta profesional autonomoak eta 199/2006 Dekretuaren I. eranskinean eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten enpresak kanpo uzten dituela.

Bigarrena.- Lurzoruen kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko 1/2005 Legeak eta Lurzoruen kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko lege-proiektuak (une honetan Legebiltzarrean izapidetzen ari da) ez dute justifikatzen lurzoruen kalitateari loturiko jarduerak gauzatzeko ziurtapena eskatzearen beharra eta proportzionaltasuna.

Hirugarrena.- Lege Proiektua aldatu egin behar da Legebiltzarrean, ziurtapenaren eskakizuna desagerrarazteko, ez-bereizkeria, beharra eta proportzionaltasuna behar bezala justifikatzea posible bada izan ezik, lurzoruen kalitateari loturiko jarduerak egiteko orduan.

Laugarrena.- Behar adina justifikazio ez badago, eta egiaztatutzat jotzen denez eskakizun horiek ez direla beharrezkoak ingurumena babesteko, Lehiaren



Euskal Agintaritzak jotzen du jarduera ekonomiko hauek gauzatzeko baldintza hori ez dela izaera orokorrarekin eskatu behar, lehiarako hain murriztaileak ez diren beste neurri batzuk egon baitaitezke arauak ezartzen duen helburua betetzeko.